

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko ekainaren 21a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Iruñea • Estafeta eta Mercaderes artean besta itzela izanen da bihar euskaldunak karrikara ateratzeko • **3**

Miren Intxaurren • «Ez dago ulertzerik Leitza bezalako herri bati hau egitea» • **7**

• ASIER AZPILIKUETA



Historia gainean ibiltzen

Iruñeko Gazteluko plazako indusketen aferak erakutsi du ondare arkeologikoa ezagutzeko interesa badutela herritarrek. Nafarroan nahiko indusketa lan egiten da, baina arkeologoek beren lana egin ostean, guti dira bisitariarentzat egokitzen diren aztarnategiak. Aztarnak hor dira, baina bisitariari ez zaie esplikatzen zer zapaltzen ari diren. Berriki, Berbintzanako Las Eretas zabaldu dute informazio panel eta aztarnen arteko ibilbideekin. Kasu bakarrenetakoa da.





Eraikin berria egiteko eta Haur Eskola moldatzeko baimena ukatu dio Lizarrako Udalak ikastolari. ● LANDER FERNANDEZ ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Bihar, jaialdia

IKASTURTE AMAIERAKO JAIALDIA OSPATUKO dute bihar Lizarra Ikastolan, iazko moduan. Kultura eta kirola uzartuz, egitarau oparoa prestatu dute biharko. Goizean goiz abiatuko dituzte ekitaldiak, pilota txapelketaren partida finalekin. Jarraian, futbola eta frontenis partidak ere jokatu dituzte. Haur koskorrek antzerki emanaldia eskainiko dute, eta goiz guztian argazki zaharren erakusketa ikusteko aukera izanen da. Ikastolen elkartearen beren agintaldia bukatzen duten honetan, Aingeru Epaltzari eta Antonio Camposi omenaldi txiki bat egingen die Lizarrako ikastolak. Jarraian, herri bazkaria egingen dute, eta eguna amaitzeko, musika eta dantzaldia izanen dira.

Eskola moldatzeak izanen luke eragin gutxien inguruan; estalpe txiki bat baino ez zen itxi behar, eta bertan zikinkeria baino ez da biltzen egun», azpimarratu du Reparazek. Gauzak horrela, 3 urte bitarteko haurren hezkuntza arautzeko Nafarroako Gobernuak aurki kaleratuko duen dekretua ezin izanen du bete ikastolak. «Egin nahi genituen moldaketak dekretuak zehaztuko duenari egokitzeko ziren, eta guretzeko oso puntu inportantea bazen ere, mementoz ezin dugu aurrera jo», zehaztu du.

Lanbide Heziketa jasotzea xedezuen eraikin berriaren asmoa ere aitzinago gauzatu beharko dute. «Beste erronka bat zen. Eraikin berria egin zenean, baziuridien ez zela inoiz beteko jendez, baina gauzak ez dira horrela gertatu; izan ere, orain izugarri estu gaude, eta ikasle guztientzako toki duin bat nahi dugu», dio Reparazek. Ikastolak egun 760 ikasle ditu, 730 Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren hezkuntzetan eta 31 Haur Eskolan. Erronka berriek aitzina egingen dute. Ezina ekinez egina.

→ Kristina Berasain

Eraikin berria egin eta Haur Eskola moldatzea ukatu dio Udalak ikastolari

IKASTURTEA AMAITZEN DEN honetan, zapore mingotsa gelditu zaio Lizarra ikastolari. Ikastolak eskaera egin eta urte eta erdi geroago eman dio erantzuna udalak. Espero ez zen erantzuna, gainera. «Ez genuen espero 3 urte bitarteko umeak biltzen dituen Haur Eskola moldatzeko egin eskakizuna atzera botako zutela. Harrigarria izan da eta, nolabait, jokoz kanpo utzi gaitu», adierazi dio Iosu Reparaz ikastolako zuzendariak NAFARKARIARI. Alta, ikastola oztopoen aurrean aitzina egiten aditua da, eta erronka berriak gauzatu ditu, nola edo hala. «Argi dago guk aurrera egin behar dugula; jendeak proiektu honetan sinesten du, eta nahiz eta bidean traba hauek aurkitu, berriro ere saiaturiko gara Haur

Urte eta erdi zain egon ondoren, jaso du Lizarra ikastolak erantzuna udaletik. Ikastetxeak ezin du moldatu 3 urte arteko haurrek jasotzeko eraikina.

Eskolaren proiektua aurrera ateratzen. Ez dakigu udal honekin saiaturiko garen edo udala aldatu arte itxarongo dugun», gaineratu du.

Arestian erran bezala, 2000. urteko martxoan egin zion eskaera ikastetxeak udalari. Bertan, zenbait moldaketa egiteko baimena eskatu zuten: igogailua jarri, jolaslekuaren zati bat estali, biltegia lekuz aldatu, Haur Eskola moldatu eta eraikin berri bat egin. Azken eskaera hori onartzea ez zela erraza jakin bazekien

ikastolak; izan ere, ikastetxea Los Llanos berdegunean dago, eta lur eremu hau Hirigintza Plan Berezi batek kudeatzen du. «Urte eta erdi honetan sarritan bildu gara alderdi politikoekin, eta batzuen jarrera oso aldekoa bazen ere, bagenekien ez zela erraza izanen eraikin berriaren proiektuan babesa jasotzea», erran du Reparazek.

Ekainaren 10ean egindako osoko bilkuran jaso zuten ezezkoa. Batasunak eta EAK baiezko botoa eman zieten proiektu guz-

tiei, IUk ere baiezkoa bozkatu zuen, eraikin berriaren proiektuan izan ezik. Bozketa horretan abstenitu egin zen. Alderdi sozialistak, berriz, baietza eman zien proiektu guztiei, eta eraikin berriari ezezkoa. CUE alderdiak ezezkoa eman zien guztiei, eta alderdi erregionalistak ezezkoa eman zien eraikin berria eta Haur Eskolaren proiektuei. Puntu honetan berdinketa tekniko gertatu zen, eta alkatesak bere kalitatezko botoa erabili zuen, eta proiektua bertan behera utzi.

«Trikimailu politikoaren» kutsua

«Guretzat trikimailu politiko bat dago honen atzean, eta argi eta garbi ikusi dira zein diren UPN-ren asmoak. Azken finean, Haur

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Gure herri handi hau... txikia da ordea... badakizue... eta gertatzen den guztia laster iristen zaigu. Edozein gauza gertatu eta jakinaren gainean egoten gara berandu baino lehen. Bat mozkortzen dela, besteak drogak hartzen dituela, gona eta galtza kontuak han-hemenka zabaltzen dira hurrengo egunean bertan. Batzuk egiak dira, beste batzuk gezur hutsak, egia erdiak ere badira. Esamesaka, gaizki esaka, elkarri txutxu-mutxuka, maltzurkeriak hitzetan jartzea biziki gustuko egiten zaizkigu nonbait.

Eta hau guztia jakinda ere, badira gure herrian beren burua besteak baino listoagotzat dutenak, beren miseriak estaltzen ibiltzen direnak.

Aberatsak, familia oneko seme-alabak eta gizarte katolikoan izen ona dutenak edo besteentzat eredu izan behar direnak izan ohi dira moral bikoitzaz gehien baliatzen direnak. Haiek ez dira mozkorti, eta drogak ez dituzte har-

Haiek ez dira

tzen, ez dira hain ahulak... mesedez... Sexu bereko jendea ez dute inoiz gustuko eta, jakina, inoiz ez dira gaixo egoten, benetan gaixo, esan nahi dut noski... Horiek etxe barneko pareten artean gordetzekoak dira. Heriotza haiengan kasualitate hutsa da, bizioak behin edo berriz gertatzen dira, baina sekulan ez segidan... Etxe oneko alaba ezkongabea haurdun gelditzen denean, huts bat izan du. Egoera berean, etxe pobreako neska, berriz... emagalduta da.

Etxe on batean norbait larriki gaixo dagoenean, hobetzen ari da beti. Ezagutu ditugu hobetzen ari ziren gaixoak hilda egon arren. Zer moduz dago etxeko jauna? Ongi, ongi hobekixago... eta hilik zegoen dagoeneko. Alkateak eta bestelako hautetsiek, batez ere izen ona gorde behar duten politikari kontserbadore horiek, sekulako moz-

korra harrapatuko dute, baina laneko afaria gaizki joan zaiela esanen dute. Apez maitekor eta amultsu horiek ez dute sekula eskua "behar ez den tokian" sartzen. Baina oraintxe barkamena eskatzen dabilta, mendeetan izandako pederastiak estali ondoren.

Segi, segi estaltzen familia oneko jendeak, izen oneko jaun-andere dotore horiek... Jakin badakigu gizaki huts-hutsak zaretela, besteok bezala. Jakin badakigu ere zuen etxeetan izen petraleko zaletasun ugari izan badaudela. Jakin ere badakigula gure akats, huts eta bizio guzti-guztiak dituzuela zuek ere. Jakin ezazue zoritxarrekoa ez dela bakarrik gurea eta uste duzuen baino askoz ere berdintsuago garelara. Jakin ezazue isilpean egiten dituzuenak eta estalita gorde nahi dituzuenak ezagunak direla, herri hau oso txikia baita. Jakin ezazue ere zuen miseriak parra ikaragarria ematen digutela, zuen jokabidea gaur egun benetan iragarria delako.

Iruñea •

Karrika euskaldunena da

Estafeta eta Mercaderes artean besta itzela izanen da bihar euskaldunak karrikara ateratzeko

Karrikiri eta Zaldiko Maldiko elkarteek antolatu duten 'Karrika geurea da' ekimena bihar arratsaldean abiatuko dute Iruñeko Alde Zaharrean. Egitasmoaren helburua da euskaldunak, eta euskara, kalera ateratzea.

USKARAREN ERABILERA Nafarroan %7ren ingurukoa da, SEI erakundeak berriki aditzera eman duenez. SEI erakundekoek kale neurketa bihar arratsaldean Iruñeko Estafeta eta Mercaderes karriken artean egingen balute estatistika hori altuagoa izanen litzateke. Izan ere, Karrikiri eta Zaldiko Maldiko elkarteek euskaldun andana bildu nahi dute bi kale horietan, 19:00etatik 22:00etara. Horretarako, gaitariak, bertsolariak, txistulariak, dantzariak, trikitalariak eta beste hainbat ibiliko dira bi kale horietan barna, euskal *poteo* handi bat osatu nahian.

Karrika herritar guziena den heinean, euskaldunena ere bada, eta horixe da bihar agerian utzi nahi dutena. «Karrikan egingen dena guziren begi aurrean ageri da, gure bizitzetako momentu ugari bertan bizi eta go-

zatzen ditugu eta bertze pertsona batzuekiko harremanak eta hartu-emanak izateko eszena-toki bilakatzen da», adierazi dute antolatzaileek.

Biharkoa *Karrika geurea da* ekimenaren baitan dago. Ekimen horren hasiera biharko besta izanen da, eta aurten halako beste hiru egingen dituzte, baina kanpaina noiz bukatuko ote den oraindik ez dakite antolatzaileek.

Ekimen honekin ez dute izen handiko deus errebindikatu nahi. Kontua da karrikara ateratzea, euskaldunak eta euskara. «Agerian utzi nahi baitugu herritar guziren begi aurrean ongi pasatzea nola ulertzen dugun, hau da, gure nortasuna harrotasunez eta normaltasunez adieraziz, baina beti ere begirunez eta modu irekian», erran dute antolatzaileek. Alegia, euskaraz ongi pasatzeko besta antolatu dute biharko, Iruñeko erdigunean, euskaldunek –gazte, haur zahar zein helduek– ongi pasa dezaten eta beste guziek –erdaldunek– ikus dezaten euskaraz ere kalean ongi pasatzerik dagoela, inolako konplexurik gabe. Honela bada, agiri bat banatuko dute euskaraz, gaztelanniaz, ingelesez eta frantsesez «jendeak zertan ari garen jakin dezan, zergatik ari garen hori egiten».

Erran bezala, *Karrika geurea da* ekimena Karrikiri eta Zaldiko Maldiko elkarteek antolatu dute



Estafeta eta Mercaderes karrikak euskaldunak bete nahi dituzte bihar arratsaldean. • JOXE LACALLE

elkarlanean. Bi elkarteak helburu ezberdinetarako sortuak bada ere, modu batean zein bestean euskara berreskuratzeko eta normalizateko lanean ari dira. Hori kontuan izanik, lehen-txeago edo beranduago elkarlanean ibili beharko zutela ikusi

zuten eta oraingoa mementu ona izan zitekeela pentsatu zuten. *Karrika geurea da* kanpaina bihar abiatuko da, baina gutierrez, beste hiru ekitaldi gehiago egingen dituzte.

→ Asier Azpilikueta

Basaburua •

IKASTURTE OSOAN ZEHAZ BERTSOTAN IKASTEN aritu ondoren, bukaera polita izanen dute Nafarroako bertso eskoletako ikasleek. Hogeita lau orduz Beruete herrian elkartuko dira helburu nagusia elkar ezagutzeko izanik. Ikasturte honetan Basaburua eta Ultzamako sei gaztetxo ibili dira Larraintzako bertso eskolan Josema Leitzaren gidaritzapean. Dena den, topaketa honetan, Araitz-Betelu, Sakana, Baztan, Bortziriak eta Iruñerriko ikasleak ere parte hartuko dute. Antolaketa ari den Estitxu Arozena bertsolariak NAFARKARIARI azaldu dion bezala, «hamalau urte arteko finala eginguzenean ikusi genuen ikasleek ez zutela elkar

ezagutzen eta giroan nabaritzen da, beraz, ga-bezi hori ikusita erabaki genuen kurtso bukaran bertso eskola guztiak elkartzea nonbaiten».

Basaburua leku egokitzat jo zuten eta hantxe dute hitzordua gaur, arratsaldeko zazpietan. Lehendabizi ongi etorria eta joku batzuk izanen dituzte lehenengo kontaktoa egiteko. Zortzietan bertso afarirako gaiak prestatuko dituzte. Oskar Estanga eta Julen Zelaieta bertsolariek jarri beharko diote doinua gai horiei. Larunbatean goizean joko berezi bat prestatu dute, bi taldetan banaturik «altxorren bila» ibiliko dira. Talde bakoitzak ha-

mar pista bertsotan eta bertsolaritzaren inguruko hamar froga prestatuko dio beste taldeari. Jolasean aritu ondoren, bazkaldu, eta jolasekin jarraituko dute zazpiak arte, bakoitza bere etxera joateko.

Monitore lanetan Estitxu Arozena eta Ekiñe Etxepeteleku bertsolariak ibiliko dira, eta espero dute hamabost gaztetxo inguru biltzea bertan. Hamalau hemezortzi urte bitarteko eskolarteko lehiaketa zela eta, holako topaketa bat egin zuten eta hantxe izan zen antzeko giro ona izatea espero dute oraingoa ere.

→ Txari Eleta

Greba

Takoneran Zaldi Eroarekin egin dut topo. Esan dit aste honetan greba egin duela eta, hortaz, Nafarroa Kapitainaren ordezkari komiki «bitx» bat bidali duela NAFARKARIARI (ja, ja!) eta emaitza nahiko «moñoño» izan dela gehitu du. Nire aldetik besazpian daramadan Niels Bohr-en Atomic Theory and the Description of Nature liburu zahaitz eder baten azpian irakurtzen egon naizela esan diot eta, noski, segituan ea zertaz dihoan galdetu dit gure marrazkilariek (ingelesez ez baitaki). Hasieran greban nagoela eta ez diodala erantzungo esan diot eta barre egin dugu, baina gero liburuaren titulua begien aurrean jarri eta berak «Teoria... Atomikoa eta Naturaren... deskripzioa» plis-plas batean itzultzeko gai izan da eta pixka bat harriturik bezala gelditu ere. Azalpenak eman dizkiot orduan: «Lehenago nire ahozkeragatik ez duzu ulertu: atomik-ziori-an-di-deskrixion-of-natur, baina, ikusten duzunez, irakurtzerakoan ez dago arazorik, funtsean dena grekera eta latina baita!». Berak orduan liburu guztia irakurtzeko gai sentitzen zela esan eta, berriz ere, barre egin dugu. «Ez, ez, hemen barruan ulertuko ez zenituzke ingelera zko milaka hitz batzuk ere badaude» ohartarazi diot, eta gero gazte nintzanean hizkuntza ikasteko «au pair» gisa ibili nintzen garai haietaz zertzelada batzuk Takonerako airean zintzilikatu ditut: «Londresen izan zen», esan diot, «non bestela?; setentaisien edo setentaisien izango zen, bosgarren portuko bigarren kaiaren zazpigarren garabiko langile seikotearen arteko langile baten laguntzaile gisa egon nintzen lau hilabetez. Langilearen izena ahaztu dut. Garbiarena aldiz ez: Liebher bat zen Z-40 horietako bat, horia, ikaragarria, arraroa bada ere ez zuen bozinarik. Ni izan ezik beste langile guztiak kurduak ziren, jatorriaren arabera osatzen baitzituzten lantaldeak, ikasi nituen lehenbiziko hitz eta esaldiak «a pint of laga, mercantship, bitch, sailor, eta horrelakoak izan ziren; ahokera kurduaz betiere: txotxa hortzetan hartua bezala ateratzen ziren hitzak». Zaldi Eroa, beti bezain arretatu, bat-batean «Esplotatzaileen lantaldeak beti jatorriaren arabera egin dira: Londresen, Mauthausen-en edo gaur egungo Corellan» esan eta pentsakor gelditu da. Arrazoiak ez zaio falta •

Arkeologoen aztarnen atzetik

ARRADA

Herria: Arrada.

Nola iritsi: Caparoso - Melida errepideko 3 kilometroan dagoen bidea hartu.

Aztarnategia: XI-XV mendeetako harresidun barrutia.

Orduetgia: Asteartetik larunbatara 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Igandetan 10:00etatik 14:00etara.

Telefonoa: 689-042733.



● GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Erdi aroko aztarnategi hau, XI eta XV mende artekoa, Caparoso eta Melida herrien artean dagoen mendixka batean da. Bere garaian Nafarroako Erreinaua defendatzeko toki estrategikoa zen. Arradako harresidun barrutia bisitarientzat egokiturik dago. Indusketa lanak ikusten ahal dira, aztarnen arteko ibilbidea egin dute eta interpretazio zentroa ere badago.

Barrutian ikus daitezke harresiak eta bere dorreak, edota San Nikolasko ermita erromanikoa, bai eta uharka eta hamabost bat etxebizitza ere. Horretaz gainera, nekropolia eta hiru kale azalarazi dituzte. Harresidun barruti hau 1455 urtean suntsitu zuten Martin Peraltaren gerlariak, Juan II.aren aginduz, Vianako Printzearen aurkako gerran. Erabat kiskalita ageri den geruza batek baieztatzen du suntsipen haren bortizkeria.

Guti dira Nafarroan bisitarientzat mola dituzten aztarnategi arkeologikoak

Indusketa arkeologikoetan diru nahikotxo gastatzen diren, Nafarroan azaleratzen diren aztarnategiak gero ez dira bisitarientzat egokitzen. Edo hobeki erranik, urteak pasatzen dira aztarnategi bat erabat egokitzen den arte; Mendigorriko Andelos hiri erromatarra kaskeologoen aztarnen atzetik joatea zaila da horrela.

BERBINTZANAKO LAS ERETAS HARRESIDUN barrutia iragan Aste Santuan zabaldu zuten, informazio panelak paratu, eta aztarnen arteko ibilbideak egin eta gero. Bigarren fasean, etxebizitza baten barrukoa berreraiki, eta interpretazio zentro bat eginen dute. Oraingo, behintzat, bisitarientzat hobekien egokitu duten aztarnategia dela erran daiteke.

Duela zenbait urte, Trama arkeologia taldeak Arrada, Arellano, Andelos eta Ledeko aztarnategiak egokitzeko plana aurkeztu zion Principe de Viana erakunde-ari, Fernando Cañada arkeologoak NAFARKARIAI erran dionez. «Gu aztarnategi asko ikusiak gara Europa osoan», adierazi du. «Eta ikusita hemen Nafarroako Gobernuak dirutza inbertitu duela indusketa lan sistematikoetan, aztarnategien museoratzeko plan bat garatu genuen. Erakundeari aurkeztu genion, gustatu zitzaion eta plan zuzentzaileak egitea agindu zigun. Kontua

da plan horien gainehiaketak bidez ateratzen dutela, eretan ez dakit zer gertatzen den, baina hagitz mantso doa».

Zaindari bat etxategia duten aztarnategi bakarrak lako harresidun barrutia, Berbingo Burdin Aroko hiria eta Mendigorriko Andelos etxagune erromatarra dira, lako aztarnategiaren gestioa Trama-aren zuzen denbora batez, baina duela hiru urte pasatxo utzi zuten, eta orain, zati bat besterik ez dago. Andelosen bi urte bukatu zuten museoaren baina, baina orduetik hutsik dago, erabateko Ondare Arkeologikoko Bulegokondari Ines Tabarrek, ordea, errantasmoa ez dagoela geldirik. «Barrutia bete eta zelako ibilbideak osatu, lan ari gara lanean», dio. «Kontuak osatu, Administrazioari aurkeztu eta onartu behar dira. Nolanahi ere, orain dago Andelosko

museoa zabaltzeko datarik. *Sine die*, beraz.

Eta Andelosen museoa egin duten moduan, Arellanoko Las Musas etxagune erromatarrean ere gauza bera egin nahi zuten. «Eraikina egiteko proiektua zehazten ari da orain», azaldu du Tabarrek. «Eta proiektu hori daukagunean beste zerbait ekinen diogu. Baina, betiere, mantso, aurrekontuak ez baitira sobera handiak».

«Aztarnategiak hor daude eta jendeak ikus ditzake», adierazi du Trama-ko Cañadak. «Baina informaziorik ez dagoenez, ez du ulertzen ikusten ari dena. Pena da, diru asko inbertitu baita». Andelos bukatu gabe eta Arellano hastear dagoenez, ez dituzte aztarnategi gehiago egokitu oraingoz. «Martxan dauden proiektu hauek bukatu arte ez dira beste batzuk hasiko», bukatu du Tabarrek.

→ Asier Azpilikueta

LEDEA

Herria: Ledea

Nola iritsi: Herrigunetik pare bat kilometrotara, Irati ibaiaren ondoan.

Aztarnategia: II-IV mendeetako etxegune erromatarra.

Orduetgia: Asteartetik larunbatara 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Igandetan 10:00etatik 14:00etara.

Telefonoa: 948-870022 (Ledeko Udala).



● HISTORIA DE NAVARRA

Irunberriko arroila ondoko aztarnategian eginiko indusketa arkeologikoei garaitako hondar arkitetonikoak aurkitu zituzten. Batetik, II. mendeko etxegunea, mosaikoz lauzaturiko patio baten inguruan eraikia. *Tablinium*-aren azpian *hipocausto* bat dago —berogailu kamera— eta *triclinium* bat —jauntxoaren aretoa—. Instalazio termalak ere baditu, baita dolare eta biltegiak ere.

III. mende bukaeran, baina, eraikin multzo primitiboa suntsitu omen zuten iparraldetik etorritako erasotzaileek. Etxegunea berriz ere eraiki zuten gero, *peristilo*-ko gunea aprobetxatuz; beste patio bat, urmaelduna, terma berriak eta nekazaritza eraikin gehiago egin zituzten. Horren ondoan, berrogeita hamar bat etxaleku daude, etxegunearen garrantziaren erakusgarri.

LAS ERETAS

Herria: Berbingana.

Nola iritsi: Herrian bertan dago.


Aztarnategia: Lehen Burdin Aroko herrixka, Kristo aurreko VII. mendekoa.

Orduetgia: Iraila arte, larunbat eta jaiegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Prezioa: 2 euro helduek; euro 1 haurrek.

Telefonoa: 699-907650 (10:30-12:30).


● RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS



Nafarroako Gobernuak kultur interesa duen ondaretzat jo ondoren, aurtengo Aste Santuan zabaldu zuten Las Eretas izeneko Lehen Burdin Aroko aztarnategi hau. Indusketa 1991n hasi zituzten, eta, kultura eta turismoa uztartu nahian, jendeak aztarnategia bisita dezan moldatu dute, aztarnen arteko ibilbideak eginez eta informazio panelak paratuz.

Kristo aurreko VII. mende hasierako herrixkaren aztarna hauek Berbinganako erdigunean daude. Arkeologoen urbanizazio osoa aurkitu zuten kanpoko harresi eta dorreekin, eta barruan altzariak —labe, banku, supazterrak eta beste— eta ostilamenduak —ontzi, eltzeta eta bestelakoak— gordetzen zituzten etxebizitzekin. Dorreetako bat eta haren ondoko etxebizitza berreraiki dituzte jendeak hobeki uler dezan nolakoak ziren orduko eraikinak.

● RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS



ANIOS

Herria: Mendigorria.

Nola iritsi: Herrigunetik 5 bat kilometrotara dago, Andiongo ermita.

Aztarnategia: Presa, ur biltegia eta etxegune erromatarra.

Orduetgia: Asteartetik larunbatara 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Igandetan 10:00etatik 14:00etara.

Telefonoa: 948-340011 (Mendigorriko Udala).


● ASIER AZPILIKUETA



Nafarroan dauden erromatar ingeniarietako lanak guti dira, baina adierazgarriak erromatarren teknika zehatzet gozatzeko. Horietako bat Mendigorrian dagoen sistema hidraulikoa da. Asteartetik hurbil Iturranduzko presa dago, 150 metro luzekoa. Maldan beherago, ur biltegia dago, bere garaian 7.350 metro kubiko ur biltzeko ahalmena omen zuena. Eta beherago, ermitaren ondoan, Andelos erromatarra dago.

Andelos *civitas stipendaria* izan zen; hau da, zergak ordaintzen, baina gobernu zentrala ez zen normalean barne kontuez arduratzen. 1980 urtetik Andelosen egin diren indusketa lanek agerian utzi dute, erromatar etxalde klasikoan artean, arkupedun *decumano*-a eta ubidearen adar bat paratzeko erabiltzen zuten *cardo*-a. Andelosen aurkitu zuten Nafarroako Museon dagoen Bakorekiko mosaikoa.

● ASIER AZPILIKUETA



LAS MUSAS

Herria: Arellano.

Nola iritsi: Deikaztelutik jaitsi eta, guruzbidean, Urbiolarako bidea hartu.

Aztarnategia: Etxegune erromatarra; IV. mendean zentro erlijiosoa izan zen.

Orduetgia: Asteartetik larunbatara 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Igandetan 10:00etatik 14:00etara.

Telefonoa: 948-527025 (Arellanoko Udala).

● ASIER AZPILIKUETA



Las Musas izeneko etxegune erromatarra, nekazaritza gunea izateaz landara, zentro erlijiosoa izan zen IV. mendean. Aztarnategian bi mosaiko daude, baina jendeak ezin ditu ikusi plastikozko etxola handi eta itxi baten barnean baitaude. Etxolatik kanpo dagoen beste guziaz lasai asko ikusten ahal da. Hainbat eraikinen artean, taurobolioa dago, eremu errektangeluar handi bat; horren erdian, bi zutabe daude, harrian zezen bana zizelkatutik dutenak. Bi zutabe horiek kopiak dira; originalak Nafarroako Museon daude.

Beste hainbat gauzaren artean, ukulu bat ikusten da, sakrifikatu behar zituzten animaliak gordetzeko erabili zutena. Baina etxegune honek duen gauzarik behinena I. mendeko upellegia da, Nafarroako zaharrena baita. Jaietarako gune horretan aldre bat dago, etxeko jainkoei eskainia.

● ASIER AZPILIKUETA



Txapelketa

Txapela buruan... Hamabost urteko gizontxo nintzela, uztaila hasierako goiz bero batean, aitak Aznarez dendara eramanez ninduen eta txapela, lehendabiziko txapela, erosi zidan. Nerabezaroaren amaierako errituala izan zen hura, eta, donostiar batek esanen lukeen moduan, txapelaren katedrala marko konparazina izan zen hartarako. Gogoan iltzatuta dauzkat zurezko apalategi haiek, kapela dotore haiek, eta, batez ere, horri guztiorri zerion eliza usain hura. Erosketaren ondotik, Rochera joan ginen bermuta hartzera, eta aitak, lehendabizikoz, berarentzako ez ezik niretzako ere ardo beltza eskatu zuen. Basoerdiak edaten genituen bitartean, txapela nola jantzi behar nuen azaldu zidan: buruan gehiegi sartu gabe, ezkererantz zertxobait alderatuta... Zoriontsu sentitu nintzen etxera heldu eta neure burua ispiluan ikusi nuen arte: nire txikitasunean ziza erraldoia ematen nuen. Ziur naiz txapela buruan ibili munduan esaera zaharraren asmatzaila ez zela **Jaime Ignacio del Burgo** edota ni bezalakoa, hau da, txikia eta buruhandia.

Bururik gabeko txapelak. Pasadizoa neure buru handira etorri izan zait Zapateria karrikako txapelaren katedralaren paretik igaro naizen aldiro. Beti, joan den asteazkenean izan ezik.



Zahar bat, txapela buruan.

Izan ere, Zapateria karrikatik igaro, eta Aznarez itxita ikusi nuelarik, teoria maltzurra bururatu zitzaidan: **Javier Gari-soain** buru duen —esaera ezin aproposagoa ari garenez ari garela— Txapelazaleen Elkarte nafalino kiratsekoa bazterrean utzita, egun abertzaleak dira txapel eroslerik handienak, eta seguru, Aznarezekoek greba egin dutela haien bezerorik handienekin ongi geratze aldera. Hori pentsatu nuen 'Cerrado por



Angela Lansbury *Murder, she wrote* telesailean.

cese de negocio' —itxita, negozioaren eteteagatik— zioen kartela ikusi nuen arte. Zenbaitetan zitalegia naiz. Nolanahi ere, zitalkeriekin segituz, aztertu beharko litzateke zer dela-eta eten duten negozioa. Nondik datorkien hondamendia...

Txapeldunak. Kontatu dudana kontatu dut, besteak beste, aste honetako grebak txapelketa —to lotura! **Juli-**

to Ibarrak ez luke korapilatsua gorik eginen —kutsua hartu die dalako. Eta grebez hitz egin nahi nuen. Eta kontatu dudana kontatu eta gero, irakurle batek baino gehiagok, **Angela Lansbury Pedro Pegenaute** bezain azeriari —**Jesus Laguna** kontseilariari kazetariak galdezka ari zitzaizkiela «Están intentando desviar la atención» (arreta desbideratzen saiatzen ari dira) ohartarazi zioneko, ahaztezina—, pentsatuko zuen E-19an greba egin nuela, bestela, Unzuko saltzailea izanik, ezin bainuen komertzio ordutegian Aznarezen paretik igaro. Bada, oker dabilta irakurle zorrotzok. Hemeretzi ez nuen grebarik egin, ez eta 20an ere. Eta, berriro oker dabilta irakurle aztiak, ez nuen **Xabier Zabalzak** proposatu bezala, biotan eskirrolarena egin. Bete-betean, bederen, ez. Unzuko langileen batzarrean hamaika memelokeria entzun eta gero, UGTko ordezkaria «Camaradas, a la huelga!» (Kamaradak, grebara!) oihu egin zuelarik, hitza hartu, eta nik ere ulua bota nuen: «Camaradas, a la mierda!» (Kamaradak, pikutara!). Pertsonal arduradunarengana jo nuen, eta 19an eta 20an oporrak hartuko nituela esan nion. Eskirrolkeria bakarra, 19an zein 20an Monte Carlon musean aritu nintzela. Aringarri bezala aipatuko dut Gerardo mus bikotekide bikruzifera baino baskoagoa beti bezala alboan izan nuela, egun biotan.



panpilonia zirkus

Enrike Diez de Ultzurrun

«Jondere»

Gari urrina. Horixe da udaren etorrerarekin batera Iruñerriatik abiatu, harresiak gainditu eta hiriko azken zoko-mokoraino bameratzen den usaina. Uzta biltzetan urrina, alegia. Azken urteotan, lehenago iristen da, nekazariak lurtean eraiten dituzten garagar eta gariak lehenago hazi eta burutzen direlako. Hiria eta Iruñerria, biak arras desberdin, buruz buru eta, halere, elkarren osagarri.

Iruñerriko nekazariak, familia osoa, larunbatetan etorri izan dira hirira. Gehienetan, gizonetako alde zaharrek merkatura arrautzak, oiloak edota umerria saltzera. Gero, salmenta eginik, San Nikolas karrikako Ultzama tabernara musean aritzera eta, garai batean, Gaztelu plazako Café Iruña-ra, noski. Emakumezkoak eta haurrak, aldiz, Palacio del niño edo

Los Zamoranos jantzi dendetara, igande eta jaiegunetako arropa erostera.

Café Iruña izan zen aunitz urtez Iruñerriko nekazarien biltoki, mintzaleku eta erabaki serioak hartzeko tokia. Hortaz arras ongi oroitzen dira Gaztelu plazako jubilatuak, neguan alde horretan ibiltzen baitira, eguzki alde goxoan, ipar haizetik babesturik. Hori bai, itxita egon behar du Café Iruña ondoko belena ospeleko atek, bertzenaz ipar gorriak ederki astinduko ditu buru gaineko zapel guztiak. Gargarrilean, ordea, hegoaldera begira dagoen alde hori eguzki galgatan egotea bezalakoa da, eta jubilatuak ahal dutenean belenako atea zabaltzen dute, freskura pixka bat, behintzat, plazan sar dadin.

Café Iruña-n, bada, erabaki serioak hartu izan dira, hantxe erabaki izan baita

● EL IRUÑA DEL 88



Peñetako aspaldiko pankarta bat.

hamaika neska-mutil gazteren eta ez horren gazteren etorkizuna. Neskaren eta mutilaren gurasoak bitartekariaren inguruan bildu, ezkontzaren finkatu, dotea zehaztu eta notarioarenera.

Zenbaitetan ere ezkongaiaren bila ari zenak iragarkiak paratzen zituen. Gaur egun, horrelako ezin konta ahal iragarki agertzen dira egunkarietan. Konparazio

batera: «persona ardurtsua, diru maila onekoa, mendizalea, zinezalea, dantzazalea... halako persona batekin harremanetan sartu nahian dabil». Lehenago, ordea, kezkak bertzelakoak ziren. Hara behin batean Oltzako zendeako emakume batek nolako oharra eman zion Café Iruñako zerbitzariari: «Etxeko alaba bakarra, sorozabal eta artalde handiaren jabea Iruñerriko mutil batekin ezkondu nahian dabil, —pero que tenga tractor—. Igorri traktorearen argazkia eta marka». Hurrengo astean, gizon ezkongabe batek Sarasate pasealekuko Foto Menaren aurrean traktorea aparkatu zuen. Jondere etxekoa zen. Traktorea, noski. Gizona, aldiz, Zarikegikoa.

Miren Intxaurreondo  MAXURRENEA HERRIARENTZAT HERRI EKIMENENKO KIDEA

«Ez dago ulertzerik Leitzabezalako herri bati hau egitea»

● GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Nafarroako Gobernuak kuartel berria Maxurrenea izeneko etxean jarriko zuela jakin ostean, Leitzan 'Maxurrenea Herriarentzat' izeneko herri ekimena sortu zen. Bertan, herriko Kultur Etxeak egon behar duela aldarrikatzen du 38 taldez osaturiko ekimen honek.

MAXURRENEA HERRIARENTZAT herri ekimenak oso garbi dauka Maxurreneak Leitzako Kultur Etxea behar duela izan, besteak beste, 1.624 herritarrek horrela eskatu dutelako. Udarako egitarau zabala antolatu dute. **■ Taldeak kulturarekin lotutako etengabeko erabilera eman nahi dio etxeari, horregatik, uda osoan erakusketak ikusiko dira.**

Bai. Hilaren 11n hasi ziren erakusketa hauek, eta hamabostero zabalik izanen dira. Berauetan herriko eskulangile eta artisauen arte lanak, espedizioetan parte hartu dutenen berri, argazki eta pintura erakusketak eta beste hainbat alor jorratuko dira.

■ Zergatik antolatu dituzue erakusketa hauek?

Honen guztiaren helburua Maxurrenean Kultur Etxea behar dugula adieraztea da, herriaren gehiengoaren nahiari eta beharri erantzunez. Bide horretan beste aurrerapauso bat litzateke egitasmo hau.

■ Aspaldiko kontua al da Maxurrenearena?

Udalak askotan eskatu izan du Maxurrenea hainbat erabilpenetarako. Zaharren egoitza eta hauentzako eguneko arreta zentroa egitea horietako bat izan zen, baina Nafarroako Gobernuak honen kontrako txostena egin zuen. 1999an Leitzako kultur egoeraren azterketa egin ondoren, Maxurrenea kultur etxea, liburutegi eta herri kirolen museo bihurtzeko proiektua garatu zuen. Hainbat kultur talderen ekarpenak jaso ondoren, proiektua aho batez onartu zen.

Beraz, ezustean harrapatu zintuzteten Gobernuaren erabakiak...

Bai, inork ez zuen uste horrelako zerbait gertatuko zenik. Ezustekoa eta haserre ere sortu zuen.



kronologia

Maxurrenea Jose Perurena Elola eta Victoria Larrat Tanco senar-emazteena zen. 1975ean sinatutako jabetza agirietan ageri den bezala, etxea Amazabal Patronatuari utzi zioten ikasle moduan erabiltzeko, edota Patronatuak egoki ikusten zuen hezkuntzarekin lotutako edozein erabilpen emateko baldintzapean.

1978an, Patronatuak Nafarroako Diputazioari utzi zion etxea lehengo jabeek jarritako klausula berari eutsiz. Horregatik, etxea Hezkuntza Sailaren esku geratu zen.

1973tik 1999 arte, Hijas de la Cruz izeneko moja taldea Maxurrenean bizi izan zen. Alde egin eta gero, etxea hutsik geratu zen. Udalak, erabilpen eskasa kontuan hartuta, Maxurrenea kultur etxe, liburutegi eta herri kirolen museo bihurtzeko proiektua garatu zuen.

■ Nola sortu zen Maxurrenea Herriarentzat herri ekimena?

Joan den otsailaren 19an, Udalak batzar batera deitu gintuen herriko talde eta elkarte guztiak Maxurrenearen egoeraren berri emateko.

Orduan jakin genuen Nafarroako Gobernuak kuartel berria Maxurrenean jarriko zuela. Egoera ikusi ondoren, han geundena handik astebetera biltzeko tan gelditu ginen, zerbait antolatzeko edo erantzun bat emateko.

■ Zein izan zen hurrengo pausoa?

Handik gutxira egin zen lehenengo bilera, eta bertan, hainbat talde eta elkartetako 35 lagun elkartu ziren. Hainbat proposamen aurkeztu ziren eta lan taldeak osatu ziren hauek aurrera eramateko.

■ Orduetik hona ekitaldi asko egin dituzue.

Bai. 38 talde eta elkarteren sinadurak lortu ditugu, eta 1.624 herritarrek ere sinatu dute Maxurrenearen alde. Antolatutako manifestaldi eta gizakateak jendetsuak izan dira. Pegatinak ere banatu dira, eta maiatzaren 10ean enkartelada bat egin ge-

nuen Nafarroako Legebiltzarrean aurrean.

■ Zer egiten ari da Leitzako Udala arlo judizialean?

Apirilean helegitea jarri zuen akordioaren aurka, Maxurrenearako Udalaren egitasmoa defendatuz, etxearen ematearen gainean dauden baldintzak eta beste hainbeste argudio eskutik izanda. Honekin batera, akordioa ez betetzea eskatu zen, egoera honek dirauen bitartean, akordioa indarrean jartzen bada, eragin daitezkeen kalteak konponezinak izanen direlakoan. Maiatzean, ordea, ezezko erantzuna jaso zuen Udalak, beraien ustez ez omen delako inolako kalte konponezinik eraginen. Akordioaren kontrako

errekurtsoaren erantzunik ez dago oraindik.

■ Nola ulertzen duzue afera hau? Erabaki politikoa dela uste al duzue?

Guk, herri ekimen bezala, ez dugu irakurketa politikorik egiten, hori Udalari dagokion zerbait da. Hori bai, ez dugu ulertzen nola, hainbeste ekimen eta mugimendu dagoen herri batean, horrelako erabaki bat har dezakeen Nafarroako Gobernuak.

■ Nola ikusten duzue etorkizuna?

Beltza. Etxea dagoeneko eman zaio Espainiako Barne Ministerioari, baina beti gorde behar da itxaropen txiki bat.

→ Estibalitz Ortega



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Usainak

Begi aitzinean duzun hau, ekainaren 19an idatzitakoa da, beraz greban ditut zentzumen gehienak. Azukre kokkor baten tamainako bekarrek, itsatsita utzi dizkidate betileak. Beraz, ikusmena oraindik ere lotan, atzo laneko bilera izan genuelako. Belarria ere gutxieneko zerbitzuetan. Atzoko trikitixa eta panderoa barru-barruraino sartuta, ezin dut gauza handirik aditu. Zentzumen bakarra daukat goardian: usaimena. Aurten alergiak ez dit kalterik egin. Alleluyah! Zentzumen guztiak greban. Eta usaimena ere bai, baina japoniarren erara, landalan. Eta honetaz ohartu da nire sudurra: zentzumen guztietan usaimena da, gehien guxtiesten dena.

«Mendialdetik Ebro bazterrera, Iratiko ohiana eta Bardeetatik pasatuz, begiaren gozamenerako hamaika kolore eskaintzen dizkio Nafarroak bisitariari...». Normalean horrela hasten dira beti Nafarroaren inguruko turismo paper eta foru weborri guztiak: Nafarroa askotarikoa. Naparra is different. Yes, yes. Eta Usainak? Lurrinak? Fragantziak? Kiratsak, zergatik ez? Noski Zangozaren deskribapen turistikoa egitean pentsaezina izanzen litzateke halakorik irakurtzea: «Zangozara heldutakoan paper faktoriak sortutako kiratsa da airean nabarmen...». Baina, gezurra al da? Ba ez. Esaterako eta konpresa iragarkari omenaldi ttikia eginez, zer usain daukate Sanferminek? Zenbat dira? Bakarra balitz usain goxoa baino, kirats gozosa dela esatera derrigortuta geundeke. Jendaila lurrin epelak, txanpain usain garrazak eta urez garbitu berri dituzten karrika usainek ematen dute kirats gozo hau. besta garaian izadiarekin bat egiten du gure usaimena: txis usaina, zezen usaina eta belar usaina. Lorategietan lotan daudenez ez dute belar usain freskoari tarterik uzten, baina egon badago belar usainik. Tabernetatik ateratzen dena hain justu; droga bigunen usain potoloa. Guztiak besta usainak. Baina kiratsik okerrena bestaz kanpokoa izaten da. Urte osokoa. Shakespearetiar jarriko naiz. Nafarroak gainerako nazioen gainetik distira egiten zuela esan zuen arren, Danimarkarekin lotu zuen beste batek hobeki dagokio: Ustelkeriaren kiratsa dario zerbaiti Nafarroan. Eskerrak noiz edo noiz grebak egiten diren.

gure aukerak

MUSIKA

- ▶ **Zizur Nagusia:** Alaitz eta Mainer gaur, 17:00etan, ikastetxeko pista estalian.
- ▶ **Iruñea:** Deus ex Machina, Anabasan eta Estigia taldeak gaur, 21:00etan, Jai alai gaztetxean.
- ▶ **Iruñea:** El Color de la Duda taldea gaur, 22:00etan, Media Luna tabernan.
- ▶ **Atarrabia:** Sen eta Kaotiko taldeak gaur, 23:00etan, Udaletxe plazan.
- ▶ **Zangoza:** Gaur, Bedssue taldea 23:00etan, Dos Caballos tabernan; eta Meridian taldea, 00:00etan, Diagonal tabernan.
- ▶ **Uhart:** *Gozamenez* prebentzio kanpainaren baitan, DJ jai egiten dute bihar, 20:00etan, Gaztetxean.
- ▶ **Zangoza:** Tximeleta taldea bihar, 22:30ean, ikastolako patioan.
- ▶ **Uhart:** Polem taldea bihar, gaueko ordubatean, Zona Limite aretoan.
- ▶ **Iruñea:** De Dos en Blues Band taldea ostegunean, 21:30ean, Terminal tabernan.

LEHIAKETAK

- ▶ **Barañain:** Haizea Kultur Elkarteak argazki lehiaketa antolatuta du. Gaia: euskal kultura. Lanak hila akitu arte aurkez daitezke.
- ▶ **Lizarr:** Lizarrako Emakumeen Asanbladak Maria de Maeztu literatura lehiaketan parte hartzeko seigarren deialdia egin du. 18 urte goitiko emakume guzietan parte har dezakete. Testuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita behar dute izan, jatorrizkoak eta argitaratugabeak. Obrak hartzeko epea uztailaren 31ean akituko da. Saria 900 eurokoa da.

HITZALDIAK

- ▶ **Uhart:** Asisko Urmenetak eta Txema Larreak *Joakin Lizarraga eta euskara* izeneko hitzaldia eskainiko dute asteartean, 20:30ean, kultur etxean.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Barañain:** Festetarako kartelen lehiaketara aurkezturiko lanen erakusketa kultur etxean izanen da asteartea arte.
- ▶ **Iruñea:** Blanca Correderas argentinarraren *Retrospectiva de una mujer inmigrante* erakusketa zabalduko tetegian ikusten ahal da hilaren 28a arte.
- ▶ **Iruñea:** Pintzel galerian (Abejeras, 6) Bernardo Villanuevaren olio lanak hilaren 29a arte.
- ▶ **Burlata:** Txema Etxeberriaren margolanak Joakin Azkarate karririkako kultur aretoan izanen dira hila bukatu arte, asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

▶ **Iruñea:** www.alecon.org webgunean, Christian Esandia haurraren aldeko Euskal Herriko 22 artisten margolanen erakusketa izanen da uztailaren 15a arte.

SAN JOAN SUAK


- ▶ **Uhart:** Igandeko 22:00etan ospatuko dituzte San Joan suak Ugarrandiako soroetan, txistorra eta musikarekin.
- ▶ **Zizur Nagusia:** Herriko joaldunak suen artetik ibiliko dira igandeko 22:00etatik aurrera. 22:30ean, txistulariak, gaitariak eta Galtzagorri txaranga batuko zaizkie.
- ▶ **Altsasu:** Igandeko 23:00etatik

02:00etara dantzaldia egonen da Eclipse taldearekin.

BESTELAKOAK

- ▶ **Barañain:** Luis Morondo musika eskolaren eskutik, musika, kantu eta dantza ikuskizuna izanen da gaur, 22:00etan, Udaletxe plazan.
- ▶ **Sartze:** Zaraitzuko Eguna ospatuko dute bihar: dianak (10:00); eskulangileen erakusketa eta haurrentzako puzgarriak (11:00); Ibañako Musika Eskolaren kontzertua (12:00); gaitariak (13:00); Mutil Gazteak txaranga (13:30); Txutxin Ibañez eta Txihuahuak (17:30); Prisma orkestra (20:00); eta Usetxiko orkestra-gizona (22:30).

Asteko erakusketa



• LANDER FERNANDEZ ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Angela Moreno

Non: Uharteko kultur etxean.

Noiz arte: Ekainaren 22a arte.

Ordutegia: Gaur 16:00etatik 21:00etara eta bihar 10:00etatik 14:00etara.